Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

2

Gure sustraiak lurrari lotuz

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 5. maila)

TXANELA 5: BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDAREN ZIRRIBORROA

"GURE SUSTRAIAK LURRARI LOTUZ..."

Unitate honek, Euskal Herriaz eta euskaldunoi buruz dugun jakin-mina eta ezagutza handitzeaz gain, gure izaeraz, ohituraz, kulturaz eta abarren inguruan hausnartzeko parada emango digu.

Hainbat atal jorratuko ditugu:

- Euskal Herriaren antolaketa politiko eta administratiboa.
- Euskal Herriaren itxura fisikoa: geografia, erliebea, mendiak eta ibaiak...
- Euskaldunon kultura eta ohiturak.
- Euskara.
- Euskal Herriko historia.

Atal horiei buruzko hainbat informazio jaso izan dute ikasleek unitate ezberdinetan, lehenengo mailan hasi eta gaur egunera arte. Horregatik, aurre-ezagutza horietatik abiatuta, informazio hori bildu, berria bilatu eta antolatzeari ekingo diogu unitate honetan.

Euskal Herriko **historiaren atalari dagokionez** ere badute informaziorik, historiako hainbat uneren eta gertakizunen berri izan baitute aurreko urteetan. Liburuko informazioak eta jarduerek bitarteko, horiek **gogora ekartzea, historiako ardatzaren arabera antolatzea eta jakin-mina piztea du helburu nagusitzat atal honek**. Beraz, jarduera horiek jorratzeko orduan, izan kontuan, orrialde horietan azaltzen den historiari buruzko informazioa **ez dela "derrigorrez ikasi beharrekoa"**.

Unitatearen haria eta helburua: Gelara datorren atzerritarrari euskaldunon eta Euskal Herriaren berri emateko aitzakiarekin, gure herriaren hainbat alderdiri (antolaketa administratibo eta politikoa, geografia, historia, ohiturak eta kultura...) erreparatu, horri buruzko informazioa bilatu, bildu, sailkatu, antolatu eta ikasturte amaierako ikuskizunean hainbat eratan (dramatizatuz, ahoz adieraziz, dantzatuz, kantatuz...) adierazteko moduan prestatu.

Sekuentzia tematikoaren laburpena:

NOR GARA GU...? EUSKALDUNAK GARA GU!
Euskaldunoi buruzko aurre-iritziak eta topikoak, euskararen jatorria, euskararen aldeko egunak eta ospakizunak, euskal hiztunak, euskal abestiak, folklorea...
EUSKAL HERRIA: KOKAGUNEA
Mapak, datu-taulak, hedadura eta biztanleria...
EUSKAL HERRIA: BANAKETA ADMINISTRATIBOA
Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Erkidegoa, Ipar Euskal Herria.
EUSKAL HERRIA: FISIKOA
Mapak behatzea eta horiek interpretatzea, erliebeko elementuak, paisaiak, Euskal Herriko mendiak eta ibaiak, haranak, urtegiak.
EUSKAL HERRIAREN HISTORIA
Artea eta historia. Ardatz kronologikoa. Gizakiaren eboluzioa. Historiaren banaketa. Euskal Herriaren historia aro ezberdinetan.

Proiektua(k): Gure herriaren kokagunearen, ezaugarrien eta historiaren berri emateaz gain, bertako ohitura, xelebrekeria, dantza eta abarren berri ere emango duen ikuskizuna antolatzea.

Urte osoko proiektuak: Lehenengo gidan proposatzen genituen txokoekin jarraitu, edota, egoki ikusiz gero, besteren bat martxan jar dezakezue.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Norberaren kultura eta ohiturekiko begirunea eta errespetua. Gertakizun ezberdinen gaineko iritzien errespetua.
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Gure ingurua (mendiak, ibaiak...) errespetatu eta zaindu.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Gaiaren ipuina: *Etxe aurreko bidea:* J. M. Olaizola "Txiliku". Txisteak. *Txorakikeriak.* Kike Amonarriz, Xabier Telleria. *Munduko ibaien poemak*. J. K. Igerabide. Ipuin literarioa: *Antonio Bolas*. Joxean Ormazabal. Elkar argitaletxea. Olerkiak • *Bidasoa*.Txomin Artola • *Mendi gaina*. Xabier Lizardi. • *Araba*. Gorka Knörr. • *Hodeiak gorri*. JoseanOrmazabal.
Arte hezkuntza	Unitateko abestiak: *Mendian gora* eta *Gure ibaiak*. Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta. *Aberriaren mugak*. Joxerra Gartzia. *Forjarien kanta*. Herrikoia. *Hablame en cristiano*. Alaitz eta Maider.
Ingurumena	Euskal Herria fisikoa eta banaketa administratiboa. Euskaldunen ohiturak eta kultura. Euskara. Euskal Herriaren historia.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturan ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea (**www.txanela.net**).** Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, "Txanela Globalizatua" deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * * * * * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (http://www.virtusbooks.com/) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Osdadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 5

IKASLEAREN LIBURUA - 2. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

Gidaliburuko jarduera	Baliabide mota	Edukia	Txanelako orrialdea	Liburu digitaleko orrialdea
0		Baliabideen taula	3	53
6		*Beti eskamak kentzen*	7	57
9		Prentsa digitala	10	60
13		*Nire aberria*	13	63
18		*Euskal folklorea*	15	65
19		Euskal Herria: kokagunea	16	66
22		*Tiriki tauki*	19	69
27		Euskal Herriko hainbat paisaia Google Earth-en	24	74
28		Euskal Herriko argazkiak	25	75
28		*Erribera*	25	75
29		Mendi gaina	25	75
32		*Euskal Herriko mendiak*	26	76
33		Euskal Herriko mendiak	28	78
34		*Mendian gora*	27	77

36		*Alpargatak urratuta*	30	80
38		Ibaiak	31	81
39		Isuarialdeak, ibaien ezaugarriak	33	83
42		*Gure ibaiak*	34	84
43		Urtegiak	35	85
45		Artelanak	37	87
46		Ardatz kronologikoa	38	88
47		*Historiaurrea*	43	93
49		*Erromatarrak*	45	95
52		*Erdi Arotik Aro Modernora*	47	97
52		*Kontrapas/Euskara jalgi hadi plazara*	47	97
52		*Gorbeiako larran*	47	97
54		Forjarien kanta	49	99
55		Bertsoz	49	99
57		Entzunaldia: *Gernika* (Pablo Sorozabal)	51	101
57		Entzunaldia eta artelana	51	101
59		*Hablame en cristiano*	53	103
59		*Ardatz kronologikoa*	53	103

59		*Ikastolen sorrera*	53	103

JARDUEREN ANALISIA

1. Azala behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Beti bezala, unitatearen azalari behatuz hasiko gara lanean, aurre-ikuspen estrategiak landu eta haurrak motibatzeko asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara (ikusi 5.1. unitateko 6. jarduera), elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazi nahi du izenburuak? Badu erlaziorik lehenengo unitatearekin? Ekar ezazue gogora "Izarren hautsa" abestia.*
- *Izenda itzazu irudian agertzen diren elementuak. Ezagunak al dituzu? Zerikusirik ba al du batak bestearekin.*
- *Zer erlazio dago irudien eta izenburuaren artean?*
- *Zeri buruzkoa izango dela uste duzu unitate hau? Irudiari behatuz, zer alderdi jorratuko duzuela uste duzu? Justifikatu zure erantzuna.*
- *Jo ezazu azalak euskaldunei eta Euskal Herriari egiten diela erreferentzia, garai batekoei ala gaur egungoei egiten diela uste duzu? Zergatik? Gaur egungo euskaldunek eta irudiak adierazten dituenek ba al dute zerikusirik? Zertan?*
- *...?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatzi behar dute unitatearen hirugarren orrialdean.

2. Komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Komikia irakurtzen hasi aurretik, kuadrillakoen izenak eta baita aurreko komikian gertatutakoa ere gogora ekarriko dugu. Gero, izenburuari erreparatuko diogu eta horren inguruan hitz egingo dugu:

- *Non demontre dago Senegal? Zer dakizu Senegal-i buruz? Ezagutzen al duzu senegaldarrik? Zergatik aipatzen dela uste duzue Senegal komikian? Azala aztertu eta iragarritakoak zer zerikusi izango ote du Senegalekin? Zer gertatuko dela uste duzu komikian?*

Aprobetxa ezazue aukera iturri ezberdinetan informazioa bilatzeko, hala nola, hiztegi entziklopedikoetan, Interneten edota munduko maparen batean.

Tarte bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakurtzeko. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora horri sakonki beha diezaioten.

Gero, taldean komikiaren inguruko elkarrizketa eragingo dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio bat edo beste martxan jarriko. Horra hor behean aukerako galdera

batzuk. Jarduera hau bi eratara bidera dezakezue, aurreko unitatean jasotako oharren arabera, zuen gelako ikasleen beharrizanen arabera:

- Bat-bateko elkarrizketa gisa, hau da, galderak luzatu eta bat-bateko erantzunak eskatuz.
- Elkarrizketa formalagoa eginez. Galderak edota hizketa-gaiak ikasleei idatziz luzatuz. Era horretan, ikasleek gai ezberdinen inguruan hausnartzeko aukera izango lukete eta irakasleok, hizkuntzako 3. eta 4. helburuei dagozkien hainbat irizpideri (elkarrizketarekin zerikusi zuzena dutenak, ikus hizkuntza arloko helburuen dokumentua) behatzeko aukera izango zenukete (elkarrizketan aritzea, norberaren ideiak azaltzea, arrazoitzea, besteenekin alderatzea...).
- Kudeaketari dagokionez, talde handian nahiz talde txikietan antola zaitezkete, jardueraren helburuaren arabera.

  - *Zein da komikiko gaia? Nola laburtuko zenuke hitz gutxitan zer den komikian gertatu dena?*
  - *Gure lagunak euren aisialdia gustuko ekintzak egiten ematen dute eta, zaletasunaren arabera, kuadrillako batekin zein besterekin elkartzen dira. Zuk gauza bera egiten al duzu? Beha eta aipa itzazu zein diren gure pertsonaien zaletasunak. Partekatzen al duzu euren zaletasunen bat? Zein? Zuk zer egiten duzu zure aisialdian? Zer, kuadrillakoekin biltzen zarenean? Nola erabakitzen duzue zertan eman denbora? Denok egiten al duzue dena elkarrekin edota nahiaren arabera elkartu edota banatzen zarete? ...?*
  - *Uxuek Manexi "kuxkuxero" deitu dio. Zer esan nahi du hitz horrek? Zure ustez Manex kuxkuxeroa al da? Aipa itzazu komikian hori erakusten duten xehetasunak? Zuk kuxkuxean ibiltzea gustuko al duzu? Zergatik? Eta beste norbait zure kontuen inguruan kuxkuxean aritzea gustuko al duzu? Zergatik? Jar itzazu adibideak.*
  - *Aitor gaixo dago. Zer duela uste duzu? Zu gaixo zaudenean, zure lagunak joaten al zaizkizu bisitan? Eta zer egiten duzue? ...?*
  - *Nor datorkie, bada, kuadrillakoei gelara? Zer izan daiteke senegaldar bat Euskal Herrira etortzeko arrazoi nagusia? Jakingo ote du senegaldarrak non dagoen Euskal Herria? Nolakoa izango dela uste duzu senegaldar hori? Saia zaitez erantzuten, kuadrillakoak egindako galderak kontuan izanik. Zure ustez, kuadrillan onartuko al dute senegaldarra? Zergatik? Intzak denbora gutxi darama kuadrillan, onartu al dute? Zuen kuadrillan erraz onartzen al dituzue lagun berriak? Zergatik? Zer abantaila izan ditzake kuadrillan gurea ez den kultura bateko lagun berriren bat izateak? Jar itzazu adibideak.*
  - *Beha arretaz azkeneko binetari. Zer gertatzen zaio andereñoari? Zure ustez, elkar ulertuko ote zuketen denek batera hitz eginez? Saia zaitez galdera bakoitza irakasleak emandako erantzunarekin lotzen.*

Komiki hau oso aproposa duzue, beste edozein bezala, hitzik gabeko komunikazioa jorratzeko; har ezazue horretarako ere tartea. Pertsonaien keinuak adierazten dutenaz hitz egiteko (lotsa, harridura, ezintasuna...), mugimendua adierazten duten ikurrei behatzeko, eta abar.

Aurreko unitatean martxan jarritako ERRANAK ERRAN txokoa hornitzen jarraitzeko asmoz, komikian agertutako esamoldearen esanahia taldean argituko dugu: *"Aizu nik erositako prezioan saldu dut". Gero, hiru laguneko taldetxoetan, esamolde hori erabil daitekeen egoerak asmatu eta antzeztuko ditugu.*

Bukatzean, esamoldea kartulinatan idatziko dugu eta txokoan itsatsiko, hori itsastean, bertan daudenak ere gogora ekarriz.

Agian, beharbada, baliteke... zalantza edo ziurtasun falta adierazteko erabiltzen diren esamoldeak dira. Baliagarriak izan daitezke gertatuko denaren aurrerapenak edo hipotesiak egin eta adierazteko ere. Azken binetaren haritik, kuadrillakoei gelara datorkien lagun berriaren inguruan hipotesiak egiten jar ditzakegu ikasleak. Nor izango ote da? Nolakoa? Zergatik ote dator? Galdera horiei erantzuteko eska diezaiekegu ikasleei, euren erantzunetan goiko esamoldeak egoki erabiltzera gonbidatuz.

- *Agian, ez du euskaraz hitz egiten jakingo.*
- *Beharbada, ez du euskaraz hitz egiten jakingo.*
- *Baliteke euskaraz hitz egiten ez jakitea.*

3. Komikia dramatizatzen

Lan egiteko era: Talde txikian

Nahi izanez gero, komikiaren irakurketa dramatikoa egin dezakezue, pertsonaien banaketa adostu eta talde handian ozeneko irakurketari ekin diezaiokezue, hizkuntzaren baliabideei garrantzia emanez. Komenigarria litzateke ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko diotela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...) ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain, doinuaren garrantzia azpimarratuz.

Irakurketa dramatikoaren alternatiba, aukerako jarduera honetan ere, komikia dramatizatzea izan daiteke, komikiko hitzak erabili beharrean, ikasleek euren hitzak erabiliz, eta, tarteka, inprobisazio txikiak eginez.

4. Aurre-ezagutzak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Talde handian, aurre-ezagutzen orria irakurriko dugu, eginbeharrekoaz jabetzeko eta lana banatu eta antolatzeko. Bertan adierazitako urratsei jarraituko diegu, Euskal Herriaz eta euskaldunez ditugun aurre-ezagutzak partekatzeko eta, talde-lan gisa, kartoi mehe handi batean biltzeko. Egindako lana gelako pareta batean kokatuko dugu, unitatea jorratu ahala landutako gaiak aurre-ezagutzekin erlazionatzeko.

5. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Unitate honetan, ikuskizuna prestatzea proposatzen dizuegu, euskal kokaguneari, ezaugarriei eta historiari buruzkoaz gain, bertako ohiturei, xelebrekeriei, dantzei eta abarri dagokiena. Orrialde honetan, hainbat ideia iradokitzen zaizkizue globoetan kuadrillakoen komentario gisa; horiez gain, unitateko atal ezberdinetan ere bonbilla

txiki ugari dituzue, proposamen berriekin. Proposamen guztiak zuen ikuskizunea txertatzea zaila gerta dakizueke; beraz, unitatea landu ahala, erabakiak hartu beharko dituzue, zuen gustuko eta neurriko proiektu txukun eta polita prestatu eta aurkezteko. Animo, bada!

Irakaslearentzako oharra: Proiektua burutzeko orrialde gisa, bueltako komikia duzu; bertan, pertsonaiak euren ikuskizunerako prestaketa-lanak egiten ari dira. Ideiak hartzeko baliagarria izan dakizueke komiki hau eta baita sintesian proiektuaren alderdi ezberdinak balioesteko eskaintzen dugun taula ere. Beha iezaiezu.

6. Abestia: Beti eskamak kentzen

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: CDa, 6. pista

Talde handian, "Beti eskamak kentzen" abestia entzun, haren letraren esanahia argitu eta abesteari ekingo diogu. Gonbidatuak euren eserlekuetan kokatu bitartean jar dezakezue abesti hau zuen ikuskizuna girotzeko, edo abestu ere egin dezakezue.

7. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka
Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumenari dagokion arloko lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, utz iezaiezue ikasleei tarte bat, bakarka nahiz binaka, gainerako informazioa gainbegiratzeko.
Gogora ezazue ikasnorabidea ikasleen ikasketa-prozesuaren auto-erregulaziorako tresna dela eta, unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, atal bakoitzean arlo ezberdinetan lantzen ari zareten edukiaz jabetzeko.
Ez ahaztu komenigarria dela ikasnorabidea, plastifikatzea eta begi-bistan izatea.

8. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek argi dutenean zein den egin behar duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko ikasi behar dutena ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu (argazki, abesti, historia-liburu, komiki, bideo...) izan dezakeen etxean gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Komenigarria litzateke ikasle bakoitzak berak ekarritako materiala talde handiari aurkeztea, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabil dezan behar den mementoan edo egoki deritzonean.
Unitate hau lantzeko, ezinbestekoa da paretako mapak eskuratzea, liburuko mapek ematen ez duten informazioa osatzeko. Eta ez ahaztu komuneko paper-biribilkia!

9. Prentsa txokoa

Lan egiteko era: Talde handian

Idatzizko prentsari gelan eman ohi zaion trataeraz gain, unitateko gaiarekin zuzenean erlazionatutako edukiei errepara diezaiokegu. Hona hemen hainbat aukera:

- "Euskal Herria" saileko berri eta erreportajeei gainbegirada eman eta boladan dauden gaiak identifikatu.
- Euskarari buruzko berriak aurkitu.
- "Agenda" sailean euskal folklorearekin zerikusia duten ekitaldien berri jaso.
- Hainbat herri edo eskualdetako ospakizun berezien berri jaso: azokak, erromeriak, festak...
- Mendi-irteera eta ibilbideei buruzko informazioa bildu: deialdiak, ibilbideen deskribapenak, mapak eta krokisak, eskualde edo inguru jakinei buruzko erreportajeak...
- Paisaian eragiten duten eraikuntza eta azpiegiturei buruzko berriak bildu.
- Euskal artistei buruzko aipamenak jaso.
- Euskal Herriarekin zerikusia duten gertaera historikoei buruzko berriak bildu eta bere garai historikoan kokatu: aurkikuntza historikoak, gertaera historikoen urteurrenak, efemerideak...

10. Zer gara gu...? Euskaldunak gara gu!

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Unitatearen hasierako jarduerak bukatuta, garapeneko jarduerei ekingo diegu, hau da, gaia atalez atal jorratzeari. Baina ezertan hasi aurretik, ez ahaztu atal honi dagokion ikasnorabideko zatia irakurtzea (hau da, lehen blokearen irakurketa horizontala burutzea).

Tarte bat emango diegu ikasleei bi orrialde horietako informazioa bakarka irakur eta hausnar dezaten, gero, talde handian, informazioa irakurri eta elkarrizketa eragingo dugu, jarduera bakoitzak proposatzen digun gaiaz mintzatzeko, euskaldunoi buruzko aurreiritziak eta topikoei buruzko gure iritziak elkarri adierazteko.

11. Kontakizuna eta txisteak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 11. or./Irakurgaiak 5, 34. eta 35. or.

Gelan, talde handian, "El vasco de la Carretilla" irakurgaia irakurri eta elkarrizketa bidera dezakezue. Mintzagaia: Egoskortasuna eta burugogortasuna. *Horrelakoak al gara euskaldunak? Eta gelako norbanako bakoitza?* Adibideak jarri, iritziak elkar-trukatu, etab.

Txisteei dagokienez, ikasleek etxean irakur ditzakete, eta, irakurtzeaz gain, horien inguruko hausnarketatxoa egiteko ere esan diezaiekegu. Ikasle askori oraindik ere kosta egiten zaio hausnartzea. Beraz, hurrengo egunean gelan txisteak irakurri eta horiei buruz nola hausnar daitekeen ere landu dezakezue.

Bi irakurgai horiek bukatu ostean, liburuko bonbillak agindu bezala, proiekturako lehen erabakiak hartzeko unea duzue hau: zer kontatu, nola kontatu (txiste modura, dramatizatuz, antzeztuz...). Behin erabakia hartuta, har itzazue entseguetarako tartetxoak.

12. Euskararen jatorria

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Bakarka lehenbizi eta taldean ondoren, pertsonaia famatuek euskararen inguruan esandako hitzak irakurriko dugu eta horien inguruan hausnarketa egingo; ondoren, euskararen jatorriari buruzko informazioa irakurriko dugu.

Euskararen jatorriari buruzko testuari dagokionez, litekeena da, ikasleek informazio hori irakaslearen azalpenez (arbelean marraztutako irudiak) lagunduta entzun beharra izatea informazioa, era egokian ulertzeko. Testuaren helburua, euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa dela eta gaur egun arte mendez mende iraun duela jakitea da.

Gai honek aukera polita ematen du hausnarketa soziolinguistikoa egin eta elkarrizketa eragiteko: *Euskarak iraungo ote du beste hainbeste mende? Ba al dakizu gure esku dagoela hori, euskaldunon esku? Nola sentituko zinateke desagertuko balitz? Inoiz pentsatu al duzu nolakoa izango litzatekeen bizitza euskaraz hitz egin gabe? ...?*

13. Euskal kantutegia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.,/Irakurgaiak 5, 38. or./CDa, 7. pista

Asko dira euskal kantutegian euskarari buruz diharduten kantak. Abesti horietako batzuen letren pusketak ditugu orrialde honetan eta horiek irakurri eta interpretatzeari ekingo diogu. Ikasleek bakarka irakurriko dituzte, irakurketaren helburua aldez aurretik jakinda: *Zein da abesti-pusketa bakoitzaren gaia? Zeri buruz hitz egiten dute?*

Gauza bera egingo dugu, baina talde handian, irakurgaietan dugun "Aberriaren mugak" abestiarekin. Bukatzean, CDarekin batera abestuko dugu behin baino gehiagotan, une ezberdinetan, ikasleek musika barneratu eta abestia buruz ikasteko aukera izan dezaten.

Unitate honetan hainbat dira CDan aurkituko dituzuen abestiak, horien eta ikasleek gelara ekarritakoen eta entzundakoen artetik, ikuskizunerako egokienak aukeratzea proposatzen dizuegu, horiek ikasi eta nahi bezala aurkezteko (dramatizatuz, koru baten antzera kantatuz...).

14. Hiztunak eta hizkuntzak : Euskararen Eguna

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.

Jarduera honek euskararen egunaren berri ematen digu. Helburua egun horren inguruko informazioa biltzea da: zer den, zergatik eta zertarako ospatzen den, noiz ospatzen den... Jaiaren kontzientzia izan eta haren garrantziaz jabetu ostean, jai horretan euren ikastolan egingo diren ekitaldietan era aktiboan parte-hartzera bultzatuko ditugu ikasleak.

15. Hiztunak eta hizkuntzak : Euskararen hiztunak
Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.

Lehenengo unitatean egindako hitz-errotari buruz jasotako oharrak kontuan izanik, irakasleak hitz-errota hau gelako beharrizan eta ezaugarriak kontuan hartuta, hainbat eratara kudeatu (talde handian nahiz txikietan) eta bideratuko du, alderdi bat edo beste modu sakonagoan landuz. Edozein dela ere landu nahi duzuen alderdia, jakinarazi ikasleei zein izango den jarraituko duzuen prozedura eta bereziki landuko duzuena. Eman ikasleei tartea "euskararen hiztunak" testua irakurtzeko (beharrezkoa balitz, taldean landuz), eta proposatzen diren galderen (ikasleak euskal hiztun gisa) inguruan hausnartzeko. Hitz-errota hori egun batetik bestera egin daiteke, ikasleek etxean edo lagunartean proposatutako gaiaren galderen inguruan hitz egiteko, hausnartzeko eta bere iritzia eratzeko.
Oharra: Komenigarria da lehenengo unitateko gidaren zirriborroko 67. jardueran hitz-errotari buruz dagoen informazio berrirakurtzea.

16. Hiztunak eta hizkuntzak : Gurasoak euskaraz
Lan egiteko era: Talde handian
Materiala:

Euskal hiztunen inguruan ari garen honetan, azterketa txiki bat egitea proposatuko diegu ikasleei, euren gurasoen euskararen erabileraren ingurukoa. Horretarako, talde handian, "Gurasoak euskaraz" abestia entzun eta haren letraren inguruan mintzatuko gara. Ikasle bakoitzak, euskarari dagokionez, bere gurasoek duten jokabidea aztertuko dute aste betean zehar, euskara noiz, norekin eta zertarako erabiltzen duten. Informazioa jaso ondoren, hitz-errota antolatuko dugu, informazioa elkarri adierazteko. Nahi izanez gero, ikastola inguruan euskararen erabilpenari buruzko azterketa ere egin dezakezue, datuak jaso, ondorioak atera eta ikuskizunean horren berri eman, betiere, joera orokorrak adieraziz. Aukera polita duzue mota horretako egiturak lantzeko:

"Gehiengoak... du"; "Gutxiengoak..."; "Bakar batzuek..."; "Banaka batzuek..."; "Gutxi batzuek izan ezik, beste guztiek..."

Bada, gure artean, euskara haur txikiekin eta animaliekin bakarrik erabiltzen duenik. Azterketa horretan, agerian geratuko da hori, eta polita litzakete, aukera aprobetxatzea dramatizazioaren bidez halako informazioa ikusleari igortzeko eta gaiaren inguruan hausnarrarazteko.

17. Grafikoak
Lan egiteko era: Bakarka/Binaka
Materiala: CD-ROMa.

"Euskararen hiztunak aitzakia" CD-ROMean, ikasleek, binaka nahiz bakarka, grafikoak osatzen trebatzeko jarduerak aurkituko dituzue. Komenigarria da ereduren bat edo beste lantzea, talde handian eta arbelean.

18. Euskal folklorea: dantzak eta musika-tresnak

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.

Talde txikietan, "Haurrak ikas zazue" abestia irakurri eta abestiaren gaiak zein diren adostu ostean, talde handian aipatuko ditugu. Ariketa honen bigarren zatiak gure herriko folkloreari buruzko informazioa jasotzea eskatzen digu, dantza, doinu eta musika-tresnei buruzkoa, hain zuzen ere. Lan hori nola antolatu eta bideratu (talde txikietan, ikastolako orduetan nahiz eskolaz kanpoko orduetan, dantza-talderen bat gelara gonbidatuz edota geuk bisitaldia eginez, bideoen bidez, liburuetan arakatuz...) talde handian erabakiko dugu. Informazio horretatik zuen ikuskizunerako baliagarriak izan daitezkeen hainbat ideia (jantziak, instrumentuak...) lor ditzakezue, eta hitz egin ezazue horren inguruan ere.

Jardueran proposatu bezala, DVDan ditugun dantzak ikusi eta haien urratsak imitatuz, gure tradiziozko dantzak ikasteari ekingo diogu. DVDa eskuartean ez baldin baduzue oraindik, aukera ezazue euskal tradiziozko dantzaren bat, adibidez, "Zazpi jauziak", "Jota eta arin arina", "Valcarlos" edo gure herrietako erromerietan entzun ohi direnak. Dantza-talderen bateko kideren bat gelara gonbidatuz gero, berak irakats diezazkizueke dantzaren baten urratsak; beraz, aprobetxa ezazue aukera, gonbidapena luzatzeko edota irteeraren bat antolatzeko. Hala balitz, dantzariari elkarrizketa egiteko galderak aldez aurretik pentsatu eta prestatu beharko dituzue.

Jarduerarekin bukatzeko, tradiziozko dantzak egokituz egindako ikuskizunaren zati bat duzue ("Oteitzari biraka") DVDan. Zuek ere, hala nahi izanez gero, ikuskizunerako antzeko zerbait egiten saia zaitezkete.

Honenbestez, lehen atalari bukaera emango genioke. Memento egokia izan daiteke ikasnorabideari begiradatxo bat egiteko eta ikasitakoari zentzu berria emateko, haren kontzientzia hartuz.

19. Euskal Herria: kokagunea

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde txikian/Banaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or./9. lan-koadernoa, 26. orrialdetik 29.era/Irakurgaiak 5, 40. eta 41. or.

Atal berria lantzen hasiko garenez, memento egokia da ikasnorabidera jotzeko, landuko dugunari begiradatxoa emateko.

Informazioa hainbat iturritan eta hainbat dokumentu motatatik jaso daiteke. Oraingo honetan, mapak, taulak eta ikurrak interpretatuz jasoko dugu Euskal Herriaren kokaguneari buruzko informazioa. Interpretazio-lana taldean egingo dugu, eta baita irakurgaietako orientatzeko tresnei buruzko informazioa irakurri ere.

Liburuko dokumentu horietatik jasotako informazioa testu modura antolatu eta, mapa eta eskema aurrean izanik, ahoz adierazten jakin behar dute ikasleek; beraz, hori lantzeari eta prestatzeari ekingo diogu.

Informazio-bilketa egiten lan-koadernoko jarduerak lagunduko digu. Jarduera hori binaka egin dezakete (irakasleak egin ditzala bikoteak antzeko ezaugarriak (ulermen-maila, erritmoa...) dituzten ikasleekin). Lan honen azken emaitza Euskal Herriaren osaketa eta banaketa, muga geografikoei eta biztanleriari buruzko testua izango da. Lan-koadernoko jarduera talde handian berrikusteari ekingo diogu, azken emaitza bezain garrantzitsua baita horretara heltzeko jarraitu dugun bidea.

Jarduera honen baitan, ziklogramen osaketan eta interpretazioan trebatzeko ariketa ere baduzue. Ikasleak lan horietan aurreko urteetan ibili izan badira ere, ez legoke gaizki talde handian gogora ekartzea horiei buruzko informazioa eta baita orrialde horretan egin beharrekoa ere. Lan hori ere binaka egin dezakete.

Behin informazioa lan-koadernoan bilduta dugula, ahozko adierazpena nola egin talde handian lantzeari ekingo diogu. Informazioa lan-koadernoan bilduta dugunean, ahozko adierazpena nola egin lantzeari ekingo diogu talde handian. Lehendik ere, aurreko ikasmailetan, ahozko azalpenak egiten trebatu dira ikasleak. Hain zuzen ere, 4. mailako 6. unitateko proiektuko zeregin nagusia horretan zetzan. Unitate hartan egindakoaz jabetzeko, baliagarri izan dakizueke liburuko 40. orrialdean (Txanela 4, 6. unitatea) eta lan-koadernoko 65-67. orrialdeetan (Txanela Euskara 4, 8. lan-koadernoa) eskainitako aholkuak eta jarduera-sekuentzia berriro ere kontuan hartzea.

Gogorararazi ikasleei ahozko adierazpena ez dela buruz ikasitako testuak ahoz errepikatzea, norberaren hitzak eta terminologia (gaiari dagokiona) egokia erabiliz, hainbat eratara azal baitaiteke gai bera. Azalpenari freskura emateko keinuak, doinu-aldaketa, etab. ere beharrezkoak izaten dira. Hitz egin ezazue horren inguruan ere.

Hori guztia gogora ekarri ostean, ikasleek binaka entseatzeari ekingo diote. Etxean ere treba daitezke, eta hurrengo egunean, gelan, talde txikietan aurkeztu. Taldekideak oharrak jaso ditzakete, euren kidearen balorazioa eginez eta aurkezpena hobetzeko ideiak emanez.

Lan-sekuentzia hori luzea izan daiteke; erregula itzazue uneak, indarrak eta lanak, asperduran edo nekean ez jausteko.

20. Euskal Herria: banaketa administratiboa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.

Atal berria lantzan hasiko garenez, memento egokia da ikasnorabidera jotzeko, landuko dugunari begiradatxoa emateko.

Euskal Herriaren egitura administratiboaren eta politikoaren informazioa ematen digun krokisa taldean irakurri eta interpretatuko dugu. Informazio hori guztia ez da ikasleak buruz ikasi beharrekoa; horretatik jakin beharrekoa da Euskal Herria erkidegotan antolatuta dagoela eta erkidego bakoitza zer izenez ezagutzen den eta zer probintziek osatzen duten. Informazio hori Euskal Herriaren kokaguneari, muga geografikoei eta biztanleriari buruzko ahozko azalpenari erantsiko dio ikasleak. Beraz, krokis horretatik saia zaitezte, taldean, ahozko azalpenerako testua prestatzen, eta eman ikasleei tartea lehengo informazioa eta oraingoa lotzeko eta adierazpenean trebatzeko.

Testuaren interpretazioa egin ostean, “Zazpi Euskal Herriek” eta “Tiriki Tauki” abestien arteko erlazioa bilatu eta bi abesti horiek irakurritako krokiseko informazioarekin izan dezaketen erlazioa ere aipatzeko beta hartuko dugu.

21. Hitz elkartuak eta hitz eratorriak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or./9. lan-koadernoa, 30. orrialdetik 32.era/CD-ROMa

Talde handian, liburuko jarduera martxan jarri ostean, ikasleek lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Jarduera honetako ariketa bakoitzaren lehenengo ereduak taldean osatuko ditugu, ikasleak jabe daitezen ondoren egin beharrekoaz. Gainerakoak bakarka osatuko badituzte ere, lagunen batekin zalantzaren bat argitzeko edo kontrastatzeko aukera emango diegu.

Bukatzean, talde handian berrikusiko ditugu jarduerok.

CD-ROMean, hitzen osaketarekin zerikusia duten hainbat jarduera aurkituko dituzue.

22. Elkartasun jolasa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 8. pista

Jolas honen helburua zera da: taldean elkartasunezko elkarrekintza bultzatzea, ikasleen jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatzea, beste kideekin batera lan egitea helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta lehiakortasunean oinarritutako hezkuntza eredua saihestea.

Jolas honen bitartez, komunikazioa, kooperazioa, adierazpen emozionala eta sormen dramatikoa landuko dira.

Gelakideak taldeka antolatuko dira eta, "Tiriki-tauki" abestiak adierazten duena kontuan izanik, dantza bat prestatuko dute bost minututan. Elkartasunez jokatu beharko dute, eta denbora mugatu batean antolatu lana. Irakasleak, bitartean, taldean ematen den komunikazioa nolakoa denari, kooperazioari eta parte-hartzeari beha diezaieke. Bost minutu pasa ostean, taldeak prestatutako dantza aurkeztuko die gainerakoei. Ikuslegoak sormena balora dezake.

Jarrai iezaiozue hiru pausoko betiko prozedurari, jolasa gauzatzeko.

Bukatzean, talde bakoitzetik gehien gustatutako motiboak aukeratu eta gela osoak dantzatuko duen koreografia asmatuko dugu, ikuskizunean dantza dezakezuena.

23. Lagun artean

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Jarduera honek tutoretzan eta "Lagun artean" elkarrizketa izateko mintzagaia aurkezten dizue, alegia, taldeko erabakiak gela barruan. Horrez gain, gelatik kanpokoari eta lagunen artekoari ere tartea egin diezaiokezue (familiari, kuadrillari...).

Ikasleek demokrazia zer den lehenengo mailan landu zuten, greziarren gaian; jar itzazue martxan euren aurre-ezagutzak eta aprobetxa ezazue aukera unitate hori eskuratzeko eta gainbegirada emateko.

Bigarren atala bukatu berri dugula, ikasnorabidera joan-etorria egingo dugu, landutakoari erreparatzeko

24. Euskal Herri fisikoa. Mapak eta eskalak
Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikain/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 20. orrialdetik 22.era

Atal berria lantzen hasiko garenez, memento egokia da ikasnorabidera jotzeko, landuko dugunari begiradatxoa emateko.

Liburuko 20. eta 21. orrialdeetan, Euskal Herriko mapa fisikoa agertzen zaigu. Haren behaketa eta interpretazioa bideratzea du helburu jarduera honek, aldez aurretik horri buruz ditugun aurre-ezagutzak martxan jarriz. Utz iezaiezue ikasleei bakarka behaketa hori egiten eta taldekideen artean komentatzen. Bukatzean, egindako interpretazioa zuzena den ikusteko eta horri buruzko informazio gehiago eskuratzeko, talde handian, hurrengo bi orrialdeetan dugun eskalei buruzko azalpen-testuak irakurri eta ulertzeari ekingo diogu, hori baita azalpen horien helburua, eskalei buruzko informazioa ulertzea, mapetan agertzen zaizkigun eskalen interpretazioa egiteko gai izatea, eta inondik inora ez buruz ikastea.

25. Eskalen interpretazioan eta erabilpenean trebatzen
Lan egiteko era:Talde handian/Binaka/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or./9. lan-koadernoa, 33. orrialdetik 35.era

Eskalen interpretazioan eta erabilpenean trebatzeko, talde handian, liburuko 23. orrialdeko informazioa irakurri eta lan-koadernoko jarduerak osatzeari ekingo diogu. Jarduera honek eskalak interpretatzeko egin beharreko kalkulu matematikoak ulertzea du helburu. Eman iezaiozue denbora eta garrantzia orrialde hauetan egiten den lanaren ulermenari. Lan-koadernoko azken jarduera, ikasleek binaka nahiz bakarka egin dezakete. Jarduera horren emaitzak erakutsiko du, hain zuzen ere, aldez aurretik taldean egin den lana balekoa izan den, alegia, ikasleek trebatu diren al ez eskalen interpretazioan eta erabilpenean.

26. Mapen koloreen interpretazioa: altitudea
Lan egiteko era: Bakarka/talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Ikasleek, bakarka, Euskal Herriko mapa fisikoari behatuko diote, eta eskala hipsometriko eta baptimetrikoari erreparatuz, koloreek adierazten dutena interpretatzeari ekingo diote. Bukatzean, egindako lanari buruz hitz egiteko, taldeko elkarrizketa egingo dugu.

27. Erliebea eta Euskal Herriko paisaiak
Lan egiteko era:Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Ezertan hasi aurretik, jar itzazue martxan gure ikasleek gai honen inguruan dituzten aurre-ezagutzak, Euskal Herriko paisaien ezaugarrien inguruan behin baino gehiagotan hitz egin baitute eta, gainera, hirugarren mailako lehenengo unitatean

erliebeko elementuak landu baitzituzten. Aurre-ezagutza haiez gogoratzeko, aukera polita da hirugarren mailakoengana jotzea edo eurak zuen gelara gonbidatzea, landu berri duten 3.1. unitatean gai horri buruz dakitena zuei kontatuz, elkar elikatu eta aberasteko.

Horren ostean, jarduera talde handian burutzeari ekingo genioke. Argazkietako toki bakoitza mapan kokatu ostean, beha iezaiozue zer kolorez adierazten den horietako bakoitza eta erlaziona ezazue aurreko orrialdean landutakoarekin.

Oharra: Erliebeko maparen horma-irudia eskuratzeko aukera izanez gero, gelara ekarri eta beha iezaiozue.

28. Paisaiak kanten eta poemen inspirazio-iturri

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 9. pista/Ikaslearen liburua, 25. or./Irakurgaiak 5, 42. eta 43. or./DVDa

Paisaiak euskal kanta eta olerki askoren inspirazio-iturri izan dira; Benito Lertxundiren "Erribera" dugu horietako bat. Abestia entzun eta iradokitzen diguna irudikatzeari ekingo diogu lehenik eta behin, hartaz gozatzeko; gero, hainbat pasarteren esanahia interpretatuko dugu talde txikietan; eta bukatzeko, abestiaren irakurketa dramatikoa egingo dugu, liburuan proposatzen diren urratsak eta aholkuak kontuan izanik. Irakurketa dramatikoan trebatzeko, olerki gehiago dituzue irakurgaietan.

Bonbillan proposatu bezala, Euskal Herriari buruzko argazkiak bil ditzakezue (Interneten bidez, ikasleek etxetik ekarritakoak, kamera digitalen bidez ateratakoak, papereko argazki edo aldizkarietako argazkiak eskaneatuz... eta horiek guztiak proiektatu, aurkezpenean norberaren sormenaz baliatuz. Irudiak pantailan proiektatu ahala, kantak eta olerkiak errezita ditzakezue, musika polit batek lagunduta.

DVDan, Euskal Herriko hainbat paisaiaren irudien bilduma duzue.

29. Abestia: Mendi gaina

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 10. pista

Mendien atalean murgiltzeko asmotan, girotzeko helburuarekin, "Mendi gaina" abestia entzun, haren letraren esanahiari erreparatu eta abesteari ekingo diogu.

30. Ingelesa: Mountains of the country

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.

OUR ROOTS ARE LINKED TO THE LAND
MOUNTAINS OF THE BASQUE COUNTRY

Euskal Herriko mendien inguruko atalari sarrera emateko, ikasleen mendiaren gainean izandako bizipen eta esperientziak jasoko ditugu. Horretarako, elkarri galderak egiteko, komunikazio-jolas bat egingo dugu gelan. Galdetegi bat prestatuko dugu, galderen egitura eta hainbat hizkuntza-elementu landuz, eta bata besteari galdetuz, gelakide guztion informazioa jasoko dugu. Bukatzeko, jasotako datuak komunean jarri eta esperientzia interesgarrienak kontatzeko aukera emango diegu.

Procedure:

- Start by looking at the work they have been doing in the classroom. Comment and ask questions on whatever you see related to mountains.
  - Tell them that of course mountains are a very important part of Basque life. We should be able to talk about them in all our languages.
  - Read the introduction together.

    ARE YOU A MOUNTAINEER?
    The Basques are known as mountaineers. It's true most of us have been to the mountains to enjoy nature or take part in a 'erromeria'. But some Basques are professional mountaineers and take part in rock climbing championships, mountain races or set off to conquer the highest mountain summits.

    What about your class? What kind of mountain experiences do you have? How many of you are real "mendizale"?

  - Tell the pupils that rather than have a whole class discussion about mountain experiences, we are going to ask and answer individually.

Before setting off with the questionnaire we have to work on how to ask the questions in English.

- Ask them to look at the first example: *Find someone who went to the mountains at the weekend.*

Elicit what question we need to ask to get this information?
Did you go to the mountains at the weekend?

- Ask them to work individually or in pairs to work out the questions to the following sentences. <u>They should not answer at this stage</u>.

You will have to decide how long you want to stop at this stage to explain the grammar points.

  - E.g. the use of the auxiliary 'do, does, did'
  - the inversion pronoun and verb with 'have, can'
  - how we like to use 'ever' as in Have you ever…? (at some time in your life)
  - etc.

Find someone who…

1. went to the mountains at the weekend.

e.g. Did you go to the mountains at the weekend?

2. knows which the highest mountain in the Basque Country is.

Do you know which the highest mountain in the Basque Country is?

3. has tried rock climbing.

Have you (ever) tried rock climbing?

4. can name 3 mountains in your province.

Can you name three mountains in (Araba, Bizkaia…)?

5. has met a famous climber.

Have you ever met a famous climber?

6. hates walking in the mountains.

Do you (like or) hate walking in the mountains?

7. has been skiing.

Have you ever been skiing?

8. has had an accident in the mountains.

Have you ever had an accident in the mountains?

9. can name 3 mountain animals in English.

Can you name three mountain animals in English?

10. has seen prehistoric remains in the mountains.

Have you ever seen prehistoric remains in the mountains? (caves, paintings, dinosaur foot prints…)

- Once you have checked the questions, explain that the pupils have to get up and ask these questions to find a classmate's name to write for each one. They can only write the same person's name once. (Unless you have a very small class!).
- Set a time limit or ask them to stop when you see most people are finishing.
- Go through the questions and use this moment for you and the other pupils to ask further questions.
    - E.g. *Did you find anyone who had had an accident in the mountains? Yes? Ainara. What happened to you? You fell over. Did you break any bones? Did you have to go to hospital? etc.*

E.g. *Has anyone been skiing? Yes, Ander. Have you been lots of times? Where do you go? Who do you go with? Are you good at skiing?etc*

31. Prentsa: Mendi ibilbideak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Irakurgaiak 5, 44. eta 45. or.

Bakarka lehenik eta ondoren taldean, prentsan, Berrian hain zuzen ere, aurkitutako osagarria behatzeari ekingo diogu. Testu horretan, Urederra inguruan egin daitekeen ibilbide baten proposamena aurkezten zaigu. Testu horren irakurketaren helburua ez da testua goitik behera irakurri eta bertan jartzen duena ulertzea (egin daiteke), hura aztertu eta atal bakoitzean ematen duen informazio motaz jabetzea baizik. Lan hori bideratu eta gauzatu ostean, prentsako osagarriak aztertzeari ekin diezaiokegu. Talde txikietan antolatuta, talde bakoitzak asteko egun bat aukera dezala, eta egun horri dagokion egunkariak dakarren osagarria aztertu ondoren, zer motatako informazioa dakarren adieraz diezaieke talde bakoitzak gelakoei.

32. Mendiei buruzko informazioa
Lan egiteko era: Talde handian/Binaka
Materiala: DVDa

DVDak, irudiz lagunduta, Euskal Herriko mendiei buruzko informazioa luzatzen du, eta mapetan agertzen zaizkigun mendien itxura eta izaera ikusteko aukera ere ematen du. Hor behean duzue idatzita DVDak, besteak beste, ematen duen informazioa. DVDa eskuratu bitartean, mapa aurrean duela, irakasleak eman beharko ditu azalpen horiek, egoki iruditzen zaizkion argibideak, eta baita, beharrezkoa balitz, tresnak ere, erabiliz. Informazio horretatik guztitik ikasleek, mapa aurrean dutela, garrantzitsuena bakarrik adierazten jakin beharko dute, mendilerro nagusiak zein diren, alegia. Informazio hori emateko, binaka, trebatze-lanak egin ditzakete.

Hemen behean dituzue DVDan ematen diren azalpenak.

(info) **Euskal Herriko mendiak hiru lerrotan banatzen dira:**

1.- ***Ur-mugako mendiak***: mendikate honek Euskal Herria erdi-erditik, ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du: Zuberoa eta Nafarroa arteko mugetatik hasi eta Salbadako mendizerraraino.
- **Ur-mugak Euskal Herria bi isurialdetan banatzen du**:
  - *** Ipar edo Kantauriko isurialdea**: hemengo ibaiak Kantauri itsasora doaz.
  - *** Hego edo Mediterraneoko isurialdea**: hemengo ibaiak Ebrora doaz eta, ondorioz, Mediterraneo itsasora.

Mendikate honen ekialdean dauden tontorrak dira Euskal Herriko altuenak, eta Pirinio izenarekin ezagutzen ditugu. Iparraldean, Bortuak deitzen zaie mendi horiei. Pirinio izenarekin ezagutzen dugun alde horretan, hainbat mendi multzo daude: Arbaila, Aldudeko mendiak, Abodi, Labia mendiak, Bortziri mendi multzoa... Mendebaldera jarraituz, Aralar, Aizkorri, Altzania, Elgea, Anboto, Gorbeia eta Salbada mendiek osatuko lukete Ur-muga.

2.- ***Kostaldeko mendiak***: itsasaldeko mendiak ere deitzen zaie, itsasotik hurbilenak beraiek baitira.
Gipuzkoaren erdialdetik hasi eta Bilboko itsasadarreraino edo Ordunteko mendietaraino hedatzen dira. Nagusienak honako hauek dira: Ernio, Izarraitz, Oitz, Ordunte...

3.- **Aurrepirinioak:** hegoaldean aurkitzen dira, eta mendilerro hauek osatzen dute: Leire, Izko, Alaitz, Erreniega, Andia, Urbasa, Entzia, Iturrieta Gasteizko mendiak, Badaia, Arkamu eta Peñagobia; eta zerbait hegoalderago, Lokiz, Kodes, Kantauri mendizerra eta Toloño aurkitzen dira.

DVDa eskuratu bitartean, ETBk argitaratutako “Lau haizetara” bideotarikoren bat ikusteko aukera baduzue, aprobetxa ezazue, eta nahi izanez gero, erabili ere bai zuen ikuskizunerako.

33. Mendien izenak mapetan kokatzen
Lan egiteko era: Bakarka/Binaka
Materiala: CD-ROMa

CD-ROMean, mendien izenak mapetan dagozkien tokian kokatzeko jarduerak aurkituko dituzue. Jarduera horiek eta baita liburuan aurkituko dituzunak ere ez dira ikasleek Euskal Herriko mendi guztien izenak eta kokalekuak buruz ikas ditzaten, hori gutariko askok egiten ere ez baitakigu (mendizaleok ez bagara, behintzat), izenak ezagunak egitea eta gure inguruko mendien altuera gutxi gorabeherakoa zenbatekoa den jakitea baizik. Hori bai, seguru horrelako jolasekin ibili ostean, guk uste baino gehiago ikasiko dituztela, baina hori ez da lehentasuna duen helburua.

34. Kanta-kantari eta "Ezetz asmatu zer mendi den" jolasa
Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or./CDa, 11. pista

Tarte bat utziko diegu ikasleei abestiaren letra irakurtzeko; gero, elkarrizketa eragingo dugu, irakurritakoaren inguruan hitz egiteko (Zein den abestiaren gaia, zein ahapaldi bakoitzean aipatzen den ideia, aipatutako zein mendi ezagutzen dugun...). Horren ostean, abestia entzun eta kantatzeari ekingo diogu. Bukatzeko, talde txikietan, abestiko mendiak eta mendilerroak Euskal Herriko mapa fisikoan bilatzeari ekingo diogu.

Abestiko mendien izenak gure mendiak ezagutzeko aitzakia dira, mapei behatuz mendiak mapetan bilatzen ikasteko, mapen behaketan trebatzeko. Jolasaren helburua ere horixe bera da, jolasa aitzakia da, nolabaiteko motibazioa pizten du eta ikasleei lagundu egiten die, mapei behatzen trebatzeko.

35. Euskal Herriko mendiak: grafikoak interpretatzen eta egiten
Lan egiteko era: Bakarka/talde handian/Talde txikian
Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or./CD-ROMa

Bi jarduera hauek, mapei behatzea eta grafikoen interpretazioa, sortze-lanean trebatzeko dira. Beraz, hori jakinik, bidera itzazue egokien iruditzen zaizuen modura.

Horrez gain, jolasa egiteko sailkapen-irizpideak asmatzeko eskatzen zaie ikasleei. Horretan hasi aurretik, argitu ezazue zer adierazi nahi duen "irizpide" hitzak, aprobetxatu aukera hiztegian begiratzeko, jar itzazue adibide bat baino gehiago "irizpide" hitzen esanahia barnera dezaten. Gero, ekin lanari.

Mendien grafikoak interpretatu eta sailkapen-irizpideak bilatzeari dagokionez, gogoan izan irizpide bati baino gehiagori erantzun diezaiokeela grafiko berak. Irizpideetan erantzun bakarraren beharrean bat baino gehiago agertuko zaizkizue, eta aprobetxatu aukera zehaztasunak duen garrantzia azpimarratzeko, betiere biak zuzentzat emanda; ez ahaztu, helburua mapei behatzea, horiek aztertzea, konparatzea dela eta ondorioak ateratzeko aitzakia ederra direla jolas hauek, motibatzeko alegia.

Mapen interpretazioan eta osaketan trebatzeko, hainbat jarduera aurkituko dituzue CD-ROMean.

36. Mendiak topaleku

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or./DVDa

Jarduera hau ikasleek bakarka irakurriko dute, egin beharrekoaz jabetzeko. Ondoren, etxekoei galdetuz nahiz bestelako informazio-iturrietan begiratuz, jardueran aipatutako galderen erantzunak bilatzeari ekingo diote. Gero, taldean egindako lana elkarri azalduko diote.

Bonbillan proposatutako "Alpargatak urratuta" abestia eta dantza ikusteko aukera duzue DVDan.

37. Argazkien jolasa

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Mendi-irteeratan ohikoa izaten da argazkiak ateratzea une edo egun hori nolabait izozteko eta betiko gordetzeko. Ideia horrekin zerikusia duen jolasa egitea da orain proposatzen dizueguna.

Taldetxoak osatuko ditugu. Talde bat eszenatokira (gelan adostutako espazio jakin batera) aterako da eta gainerako taldetxoak ikusleak izango dira. Irakaslea eszenatokian dagoen taldekideekin bildu eta, isilean, atera nahi duen argazkiaren gaia zein den adieraziko die. Taldekideak, elkarrekin hitz egin gabe, segundo batzuk pentsatzeari eman ostean, irakasleak "klick" esatearekin batera argazkia osatuko dute. Ikusleek argazkiari behatu eta egoera edo gaia asmatzeari ekingo diote (eskua altxatuz eta txandaka hitz eginez). Asmakizunetan jolasten ari bagara ere inork ez du irabazten, elkartasun jolasa egiten ari baikara, eta helburua argazkiak osatzeak, ikusteak eta asmatzeak sortzen duen pozaz gozatzea da.

Hauek izan daitezke argazkietarako aukerako gaiak:

- Matematikako klasea.
- Ezkontza
- Igerilekua
- Jaia
- Mendia
- Ibaia edo erreka.
- Oesteko pelikula
- Urtebetetzea

Argazkia osatzen duen lagun bakoitzak gaiak iradokitzen duena adierazi beharko du era estatiko batean. Adibidez: matematikako klasea bada, batek asperdura-aurpegia jarriko du, beste batek eskua altxatuko erantzuna jakingo balu bezala, beste batek zazpi atzapar erakutsiko ditu irakaslearen erantzuna balitz bezala, beste batek irakaslearena egingo du, etab.

Argazkiren bat nola egin asmatu ezinean bagabiltza, "bideo" hitza esan, eta pelikula mutua balitz bezala argazkia atera, eta hurrengo segundoak, automatikoki, bizidunak izango dira, alegia, hitz egin gabekoak, mugimenduen bidez gaia eta egoera dinamizatuz erakutsiko dutenak. Agian, egoera moldatuz edota egokituz joango da, edota pertsonaietako batzuek euren rolak kateatuko dituzte edota aldatu. Hori guztia inprobisazioa tarteko egingo da, inork zuzendu gabe. Memento horretan, irakasleak berriro ere "argazkia" esango du, eta irudia izoztu egingo da, ikuslegoak asmatzeari ekiteko.

Zuen ikuskizuneko hainbat egoera edo gertakizun adierazteko edo aurkezteko teknika bezala erabil ditzakezue argazkiak, memento jakin batean bizidun bihurtuz edo alderantziz.

Euskal Herriko ibaiak

38. Ibaien ibilgua

Lan egiteko era: Binaka/talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 31. eta 32. or./9. lan-koadernoa, 36. eta 37. or./CD-ROMa

Binaka, "Eta zuk, zer dakizu?"-ko irudia eta hitzak interpretatu eta erlazionatuz, ibaien ibilguari buruz laugarren mailan ikasitakoaz (ikus, 4.5. gaia: "Ura, bizizaren iturri!") dituzten aurre-ezagutzez baliatuta, jardueran eskatzen zaien informazioa koadernoan biltzeko eskatuko diegu. Ondoren, informazio hori egiaztatzeari edo osatzeari ekingo diogu. Lan hori taldean eta irakaslearen azalpenak eta argibideak bitarteko burutuko dugu, hiztegiaren (eskukoa nahiz hiztegi elektronikokoa) erabileran trebatzeko estrategiak modu esplizituan lantzen eta irakasten ari baikara.
Hiztegi elektronikoen erabilera lantzeko, honako helbide hau bisitatzea gomendatzen dizuegu: www.hiztegia.net, bertan mota guztietako hiztegiak izango dituzue eskura, eta oso erabilgarriak gerta dakizkizuekeenak.

CD-ROMean, aditzen lanketarekin zerikusia duten hainbat jarduera aurkituko dituzue.

39. Mapak behatuz gure ibaiei buruzko informazio biltzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or./9. lan-koadernoa, 38. eta 39. or

Ikasleek, bakarka, mapei behatu eta eskatzen zaien informazioa euren koadernoan bildu beharko dute. Bukatzean, talde handian, egindako lana berrikusiko dugu; lan horrek irakasleak ahoz adierazten duen ibaiei buruzko informazioa errazago ulertzen lagunduko baitu.

Irudietan bilatu beharreko akatsak:

1.- Ibai batek baino gehiagok, Bizkaiko golkorako bidean, mendian gora eta behera egiten du. Horren adibiderik argiena Cadagua da, Garobel mendilerroan sortu eta aldapan behera egin beharrean, bi mendi igotzen ditu, Nerbioira iritsi arte.
2.- Iratiren ur korrontearen norabidea kontrakoa da, Mediterraneora isurtzen baititu urak.

Hemen behean, irakasleak ahoz, mapa aurrean duela, azaldu beharreko informazioa duzue.

Pirinioetako adar nagusiak bi isurialdetan banatzen du Euskal Herria:

* *Atlantiko aldea*: isurialde honetan, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa ia-ia osoak eta Arabako eta Nafarroako zati batzuk kokatzen dira. Hemengo ibaiak motzak eta emaritsuak dira, mendiak itsasotik oso hurbil daudelako. Higadura-lan gogorra egiten dute, menditik jaitsi eta itsasora oso tarte laburrean heltzen baitira. Urte osoan dira emaritsuak euriei esker, eta ez dute agorraldi handirik izaten.

**Mediterranio aldea:* Nafarroako eta Arabako zatirik handienak isurialde horretan sartzen dira. Horko ibaiak bi multzotan banatzen dira:

1. Pirinio aldekoak: ibai horiek ez dira oso luzeak eta aldapa handia dute. Udaberrian, elurrak urtzean, emaritsuak dira, eta udan, ur gutxi eraman ohi dute.
2. Lautadetakoak: ibai horiek, aldiz, luzeagoak eta aldapa gutxikoak dira. Udaberrian eta udazkenean ur-maila altuak izaten dituzte, eta udan agorraldiak.

Ikasleek, mapa aurrean dutela, ahoz adierazten jakin beharko dute informazio hori, ez dute zertan ezer buruz ikasi, maparen interpretazioa egitea besterik ez baita. Lan hori erraz osatzen eta bideratzen lan-koadernoko jarduerak lagunduko die.

40. Ibaien ibilguen grafikoak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: 9. lan-koadernoa, 40. or.

Grafikoen osaketan eta interpretazioan trebatzeko, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Bukatzean, talde handian, lana berrikusteari ekingo diogu. Gogoratu, grafikoekin trebatzeko, hainbat jarduera dituzuela CD-ROMean.

41. Euskal Herriko ibaien poemak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Irakurgaiak 5, 46. eta 47. or.

Taldean, ibaien poemak era dramatikoan irakurriko ditugu. Bukatzean, tarte bat emango diegu ikasleei, gure ikastola dagoen herriko ibaiari edota gure herriko ibaiari olerkia idazteko. Bukatzean, ikasle bakoitzak bere olerkia gelakideei irakurriko die.

42. Kanta-kantari: Gure ibaiak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or./CDa, 12. pista

Tarte bat eman iezaiezue ikasleei, "Gure ibaiak" abestia irakurtzeko eta haren letraren esanahiaz jabetzeko. Ondoren, abestiaren hitzekin batera mapa fisikoan zehar bidaiatuz, bi isurialdeak bereizteari ekingo diogu, abestiko ibaiak mapan kokatuz. Horren ostean, musikarekin batera, abestia kantatuko dugu. Abestia ikasiz gero, ikuskizunean abesteko aukera izan dezakezue.

43. Urtegiak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or./Irakurgaiak, 48 eta 49. or.

Jarduera honetan, urtegien inguruko gogoeta eta hausnarketa egitea proposatzen zaie ikasleei, informazioa bilatu eta gaiaren inguruan berezko iritzia eratzeko. Informazioari dagokionez, aldeko eta kontrako iritziak jasotzen saiatu gara, irakurgai

nahiz abesti modura eskainiz. Jarduerak proposatutako urratsak bete ostean, gure ikasleek euren iritzia osatu eta taldeari adierazi beharko diote.

Jarduera honek iritzi kritikoaren inguruko gogoeta egiteko aukera polita ematen digu. Iritzia eratu aurretik, komenigarria izaten da gaiarekiko informazio ugari biltzea. Gaia alde guztietatik eta goitik behera aztertu behar da, alde baikorrei eta ezkorrei erreparatuz. Gero, horiek guztiak baloratu eta iritzia sortzeko.

44. Haranak

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or.

Taldean, haranei buruzko testua irakurriko dugu eta, ondoren, irakurritakoa egiaztatzeko, Euskal Herriko mapa fisikoari behatuko diogu. Behaketa-lana taldetxoetan egin dezakezue eta talde handian berrikusi.

Gure ikasleek hainbat zibilizazioren berri izan dute lehenengo mailatik hasita eta jakinaren gainean daude hainbat zibilizazio eta herri ibaien inguruan sortutakoak direla. Ipin itzazue martzan aurre-ezagutza horiek, Ebro eta Nerbioi ibaiei dagokien ariketak eskatzen duen informazioa bilatzen hasi aurretik. Bi ibai horiei buruzko informazioa bila dezakezue gelako hiztegi entziklopedikoetan nahiz hiztegi elektronikoak erabiliz, eta, hartara, informazioa bilatzeko hainbat iturriren erabileran treba zaitezkete.

EUSKAL HERRIAREN HISTORIA

Historiako atal honetan, hainbat iturriz baliatuz, ikasleek, euskaldunon historiarekin zerikusia duen informazioa bildu eta antolatu beharko dute. Gogoratu informazio hori ez dela "Zertan derrigorrez ikasi behar".

45. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.

Atal berria lantzen hasiko garenez, unea egokia da ikasnorabidera joan-etorria egiteko.

Artearen eta historiaren arteko loturak adierazten dituen sarreratxoa irakurri, eta galdetu ikasleei horri buruz zer dioten.

Orrialde honetan, gure historiaren hainbat garaitan artistek egindako artelanak dituzu. Ahal baduzue eskura itzazue, neurri handiagoan behaketa ondo egin ahal izateko. Horiez gain, gure historiako beste artelan batzuk ere eskuratzen badituzue, aberatsagoa izango da behaketa.

F. MENDIETAren koadroan oinarrituta, garai desberdinak alderatuz marraztea proposatzen dizuegu. Koadro hori handiagoan lortzerik ez baduzue, bila ezazue besteren bat edo bi, zeinetan emakumeak eta gizonak Erdi Aroko edo Aro Garaikideko janzkerarekin azaltzen diren.

www.jjggbizkaia.net helbidean, Gernikako juntetxea birtualki ikusteko aukera duzue, eta, bertan, Mendietaren koadroa ikus daiteke.

Koadroan dagoen emakume bat eta gizon bat aukeratu eta ondo behatu. Aztertu ondoren, bien marrazkia egin, giza gorputzaren proportzioak kontuan izanik Bere aldamenean, gaur egungo beste emakume bat marraztu, garaira egokitzeko egin beharreko eraldaketak kontuan izanda. Gauza bera egin gizonezkoarekin. Marrazkiak margotu.

NIKOLAS LEKUONA. Hurbilketa.
Surrealistek eta surrealismoak inkontzientean, ametsetan, oinarritzen zituzten beren artelanak pertsonaren alde onirikoa (ametsetan azaltzen dena) azalduz. Horregatik sortzen zituzten errealitatean eman ezin diren taldekatze-harreman horiek. Irudi errealetan oinarritzen ziren, baina beraien artean harreman berriak sortuz ametsetako munduak irudikatzen zituzten.

Jarduera:
Argazki-muntaia egiterakoan, aldizkarietatik irudiak moztu (ondo perfilatuz) eta beraien artean erlazio berriak sortu, irudien arteko proportzioak aldatuz, kontrasteak sortuz, ezinezko ekintzak irudikatuz.
Lehendabizi, irudiak aukeratu ondoren, ondo moztu eta itsatsi aurretik hainbat proba egin gustuko konposizioa lortu arte. Kartulinaren hondoa ere landu daiteke margotuz (argazkiak itsatsi aurretik edo ondoren).

MARTA CARDENAS
Koadroan azaltzen zaiguna ate baten xehetasun bat da. Eta artista horretan fijatu da bere artelana egiteko. Xehetasunari, detaileari eman dio garrantzia.
Gu ere, gure lana egiterakoan, gelako edo objektu baten xehetasunak begiz joko ditugu, behatuko ditugu eta horren marrazkia egingo dugu. Betiere, lehenengo, bozetoak (zirriborroak), apunteak, erabilitako orritan egin ditzakegu, eta zer egin nahi dugun erabaki ondoren, kartulina batean landu eta margotu.

DARIO REGOYOS
Hiriko paisaia nola aldatu den ikusteko, artelan honetan oinarritu gaitezke, edo antzeko beste batean.
Ariketa egiten hasi aurretik, denon artean koadroari behatu eta gaur egungoari ez dagokiona zer den adostu, artelanetik kentzeko edo aldatzeko. Zerbait gehitu beharko balitz ere, adieraz dezatela.

46. Historiaren ardatz kronologikoa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 38. eta 39. or./9. lan-koadernoa, 41. or.

Ikasleek, bakarka, bi orrialde hauetako informazioa irakurri ostean, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote, historia eta baita historiaren ardatz kronologikoa zer diren ohar daitezen eta datak ardatz kronologikoan kokatzen eta interpretatzen trebatu. Bukatzean, talde handian, egindako lana berrikusteari ekingo diogu.

47. Gizakiaren historia: Historiaurrea

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 40. eta 41. or./9. lan-koadernoa, 42. or.

Talde handian, liburuko jarduerak proposatutako urratsei jarraituko diegu, gizakiaren historiaz eta historiaurrearen aroez jabetzeko.

Lan-koadernoko jarduera ere talde handian osatuko dugu. Jarduera honek ikasleek historiaurrearen eta historiaren iraupenaren artean dagoen alde handiaz jabetzea (liburutegiko jarduerez eta paper biribilkiaz baliatuta) ahalbideratuko du.

Oharra: Lan-koadernoko jarduerari dagokion liburutegiko irudia, errakuntzaren baten ondorioz, ez da ariketa osatzeko proposatzen genuen bera; batetik, liburuak 1.000 orrialdekoak balira, denek lodiera bera izan beharko luketelako, eta bestetik, kolorea duen zerbait koloreztatzea zaila delako. Esandakoagatik, beraz, hobe duzue hemen beheko ereduaren antzekoa erabiltzea.



Jarduera hauek guztiak bukatu ostean, talde handian, gure gelako ardatza osatzeari ekingo diogu.

48. Gizakiaren historia eta historiaren aroak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 41. orrialdetik 43.era/9. lan-koadernoa, 43. eta 44. or.

Orrialde honetan hasi eta ondorengo atal guztietan, goiko aldean, lantzen ari garen historiako zatiari erreferentzia eginez, komuneko paper biribilkiaren irudian, aroaren izena ardatzean kokatuta eta gorriz biribilduta aurkituko duzue. Errepara iezaiozue horietako bakoitzari, jarduerak jorratzen hasi aurretik.

Bi orrialde horien helburua ikasleak gizakiek mendez mende izan duten eboluzioaz jabetzea da. Horretarako informazioa luzatzeaz gain, aldez aurretik

landutakoa (Txanela 1.3. "Lehen gizakiak" gaia) berrikusteko eta biltzeko proposatzen digu liburuak. Tarte bat eman ikasleei orrialde pare hori irakurtzeko eta eginbeharraz jabetzeko. Gero, jarrai iezaiezue aginduei, jarduerak burutzeko. Bigarren jarduera osatzeko, DVDa izan bitartean, lehenengo mailako bideoa eskuratu beharko duzue, eta lehen gizakiari dagokion bideo-zatia ikusi. Bideo-zatiari dagokionez, hiru unetan landuko dugu. Lana hiru laguneko taldetxoetan antolatuko dute ikasleek, jakinik, bideoa bi aldiz entzungo dutela. Lana nola banatu, zeri jarri bakoitzak arreta berezia, oharrak nola hartu, hori guztia aurreikusi eta nola burutu erabaki beharko dute ikasleek. Lehenengo ikustaldiaren ostean, taldetxoak bildutako informazioa antolatu eta falta zaionaz jabetzeko parada izango du. Bigarren ikustaldian, hura osatzeko aukera izango du. Behin lana burututakoan (osatuta egon edo ez), bideoa hirugarren aldiz ikusteari ekingo diogu, oraingoan, talde handian, eta behin baino gehiagotan geldialdiak ere eginnez, bildutako informazio horri erreferentzia egiteko eta horri buruzko azalpenak edo argibideak emateko. Ikus-entzunezko iturritik informazioa jasotzeko jarraitutako prozedura balioesteko aukera ere ez dugu galduko.

49. Aintzinaroa: Historiaurretik Erdi Arora

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 44. eta 45. or./Irakurgaiak 5, 50. orrialdetik 53.era

Historiaurretik Erdi Arora euskaldunok beste herri eta kultura batzuekin izan ditugu harremanak. Gure ikasleek izan dute horietako batzuen berri, erromatarrena, adibidez, (Txanela 1.6: "Nor ziren, zer harreman zuten euskaldunekin, zein izan ziren euren ekarpenak"), Aurre-ezagutza horiek guztiak martxan jartzeaz gain, gure historian gurekin harremanetan egondako beste herri eta kultura batzuen berri emateko asmoz, jarrai iezaiezue liburuko IRAKURRI AURRETIK eta IRAKURRI ONDOREN jarduerei dagozkien ariketei.

"Etxe aurreko bidea" ipuina irakurri ondoren, argumentua zein den adierazteko eskatuko zaie ikasleei (B aukera) eta, ondoren, fikzioa eta benetako informazioa (edota benetakoa izan daitekeena) bereizteko. Ipuinetik honako informazio hau lor daiteke historian zehar euskaldunekin harremanetan egon diren herriei eta egin dizkiguten ekarpenei buruz:

Herri zeltak

- Errementari abilak.
  - Ondo menderatzen zituzten sua eta mailua.
  - Bazekiten brontzezko eta burdinazko tresna erabilgarriak egiten: kate-orratzak, gerrikoak lotzeko kakoak, buruak babesteko kaskoak...
- Urtean hamahiru hilabete.
- Zuhaitzak asko maite dituzte, haritza eta sagarra bereziki.
  - Hamahiru zuhaitz, horietako bakoitzak hilabete bati babesa emateko.
- Ekarpenak: sagarra eta sagardoa.

Erromatarrak

- Ekarpenak:
  - Golde-nabarra.
  - Mahatsa, ardoa.
  - Legeak, merkataritzako arau berriak.
  - Eraikuntza ederrak: harrizko ubideak; zubiak; estrata zabalak eta luzeak, harri zabal eta handiez egindakoak, Euskal Herrian zehar.

Sueboak, bandaloak eta alanoak

- Mendebalderantz joan ziren (pasaerakoak).

Bisigodoak eta frankoak

- Harreman gatazkatsua ("*...etorri baitziren, gure atarian geratu eta gure arbasoekin borroka egitera*")

Arabiarrak

- Arabiatik eta Afrikatik.

Judutarrak

- Asiatik ihesi.

Ijitoak

- Indiatik edo Egiptotik.

Bikingoak

- Lurralde hotzetatik.
- Bidaiari handiak.
- Borrokalari gogorrak.
- Marinel apartak.
  - Drakkar izeneko ontziak: arinak, gobernatzen errazak, arraunekin erraz mugitzen zirenak.
  - Aise ibiltzen ziren batetik bestera.
  - Ontziaren erdian masta luze bat, sokekin lotuta.
  - Mastan, oihal karratu handi bat.
  - Haize ez oso zakarrarekin, goxo-goxo uraren gainean; haizerik gabe, arraunak.
- Europa guztia gurutzatu zuten.
  - Drakkarrekin itsasoan, itsasadarretan eta ibaietan gora.
  - Ibaietan ur gutxi bazen, drakkarra bizkarrean hurrengo ibai handiago bateraino.
- Euskal Herrian:
  - Baionan bi aldiz.
  - Iruñean Gartzia I.a Nafarroako erregea bahitu zuten eta 70.000 diruren truke libratu.
- Ekarpenak: traineruak egiten irakatsi.

Txanela 1. mailako bideoan, erromatarrei buruzko informazioa duzue, ikus ezazue aukera izanez gero.

50. Lagunartean

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 45. or.

"Lagunartean" sailak, ikasle, irakasle eta ikasle-irakasle arteko jokabidearen inguruan hausnartzeko parada ematen digu. Gure jokabideak balioesteko, kritikatzeko, aldatzeko, zuzentzeko eta abar, betiere elkarbizitza errazagoa eta bidezkoagoa izateko. Proposamen hori tutoretzan bidera dezakezue.

Tutoretzan gaia landu aurretik, eman iezaiezue ikasleei denbora gaiaren inguruan hausnartzeko, oharrak hartzeko eta bakoitzaren iritzia edo azalpena prestatzeko.

51. Erdi Aroa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or./Irakurgaiak 5, 54. eta 55. or./9. lan-koadernoa, 45. or.

Erdia Aroan, besteak beste, gure historiako gertakizun garrantzitsuenak Nafarroako erresumaren inguruan eman zirenak dira. Jarduera honetan, gertakizun horien inguruko aurre-ezagutzak (Txanela 4.4. unitate didaktikoa) martxan jarri eta Nafarroako erresumaren sorreratik deuseztapenera arte izandako gorabeheren berri ematen zaie ikasleei. Informazio hori guztia, taldean eta irakaslearen argibideak lagun, irakurriko dugu. Helburua ez da goitik beherako ulermena bermatzea, irakurgai horretatik gertakizun nagusiak zein ziren identifikatzea baizik. Horiek bildu eta esanguratsuenak gure ardatzean kokatuko ditugu.

Garai horri dagozkion aurre-ezagutzak martxan ipintzeko, Txanelako ondorengo unitate hauek eskuratu eta araka ditzakete ikasleek: Txanela 2.2. eta 4.4.

52. Erdi Arotik Aro Modernora

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or,/Irakurgaiak 5, 56. orrialdetik 59.era/DVDa/CDa, 14. eta 15. pistak

Atal honetako ideiarik garrantzitsuena, Erdi Aroa izan zen aro ilun hartatik, metaforikoki hitz eginda, arlo askotan, argitasuna sortzen dela liteke, hau da, aurkikuntza garaia da, pizkunde garaia, aldaketa garaia.

"Eta zuk, zer dakizu?" atalean, aipatutako ideiak islatzen dituzten irudiak dituzue, ikasleei ezagunak egingo zaizkienak. Aurre-ezagutza horiek guztiak martxan jarriko ditugu, lehenik eta behin, gogoratzen dutena aipatzeko esanez eta ondoren, ideia horiek landu ziren unitateak eskatuz eta arakatuz. Honako hauek dira unitateok: Txanela: 2.3. eta 4.2. eta, DVDa izan bitartean, 2. mailako bideoan 3. unitateari dagokion zatia, hau da, "Euskaldunak eta itsasoa".

Garai honek alderdi on eta gozo ugari izan bazituen ere, egoera latza ezagutu zuten hainbat euskaldunek, sorginekin zerikusia zuena, adibidez. Irakurgaietan dituzue informazio hori osatzeko bi irakurgai, euskarazko lehen idatziekin zerikusia duena bat eta sorginkeriaren ingurukoa bestea. Taldean irakurri eta bakoitzari buruz dugun iritzia ematen saiatuko gara. Aurreko bi ideiekin zerikusia duten eta CDan aurkituko dituzuen bi abesti lantzeko tartea ere hartuko dugu, "Euskara jalgi hadi plazara" edo "Kontrapas" eta "Gorbeiako larrean".

53. Aro garaikidea
Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or.

Historiako testuak informazio eta data ugari izaten dituzte eta sarri gerta dakiguke irakurritako guztia ez ulertzea edota ulermen-bidean galtzea. Hala ere, testua osorik ulertu ez arren, adierazten duenaren ideiara hurbil gaitezke. Hori da, hain zuzen ere, gure ikasleek egin behar dutena talde txikietan, hau da, hiru testu horietako bat aukeratu, adierazten duen ideiara hurbildu eta gainerako guztiek hura uler dezaten nola dramatizatu pentsatu eta gauzatu.

Dramatizazioak ikusi ostean, ikasleek bakarka azken aginduak adierazitako ariketa osatzeari ekingo diote, gero, talde handian, erantzunak kontrajarriko ditugu, aukeraketa bakoitzaren justifikazioa eginez.

54. Abestia: Forjarien kanta
Lan egiteko era: Bakarka/talde handian
Materiala: Irakurgaiak 5, 60. eta 61. or./CDa, 13. pista

Testu baten ulermen orokorrean trebatzen jarraitzeko asmoz, ikasleek bakarka irakurriko dute irakurgaietako abestia, zertaz ari den jabetzen saiatzeko (ez baita erraza). Irakurritakoa aurreko jardueran dramatizatutako hiru gertakizunetako batekin erlazionatzen saiatu beharko dute ikasleak eta euren aukeraketa justifikatzen ere bai; azken urrats hori taldean osatuko dugu. Gero, abestia kantatuz, gozatzeari ekingo diogu.

55. Bertsoz
Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 49. or.

Bertsolaritzari toki eginez, bertsopaperei buruzko informazioa irakurriko dugu talde handian. Ondoren, talde txikietan, jarduerak proposatutako galderen erantzunen inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dute ikasleek, gero, talde handian adieraz dezaten hitz egindakoa.

Bukatzean, talde handian, Iparragirreren "Gernikako arbola" abestiaren letra eskuratu, irakurri, interpretatu eta abestuko dugu.

56. XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera
Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 50. eta 51. or.

XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako gertakizun nagusiei buruzko informazioa dugu orrialde hauetan. Talde handian irakurriko ditugu egiteko proposatzen zaizkigun jarduerak eta etxekoei galdetuz bildu behar dugun informazioaz jabetzeko. Informazioa eskuratu ostean, talde handian, elkarrizketa eragingo dugu. Irakasleak bideratu behar du elkarrizketa hori, egokien iruditzen zaion eran, betiere kontuan izanik, gai edo gertakizun beraren gaineko iritziak agertuko direla eta denak direla oso errespetagarriak. Komeni da hori kontuan izatea eta ikasleei betearaztea.

57. Entzunaldia eta artelana

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 51. or./CDa, 16. pista

Ikasleek, bakarka, Pablo Sorozabalen "Gernika" kantata entzun bitartean, Pablo Picassoren "Gernika" koadroari behatuko diote. (Ahal duzuela, liburukoa baino neurri handiagoan lor ezazue). Bukatzean, elkarrizketa sortuko dugu, sortutako sentipenen inguruan hitz egiteko.

Hona (irakaslearentzat) Gernikako bonbardaketaren inguruko informazio laburra (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa), baita Picassoren eta Pablo Sorozabalen obren ingurukoa ere:

Gernikako bonbardaketa

Espainiako Gerra Zibilean Francoren aliatu zen aire-armada alemaniarrak egindako bonbardaketa (1937-IV-26). Gernikan azoka-eguna zen eta helburu zibilei eraso zieten italiar eta alemaniarrez osatutako tropek orduko puntako materiala erabiliz. Herria erabat suntsitu zuten. Bonbardaketaren ondoren, Mola jeneralak herria hartu zuen. Francok ukatu egin zuen beti bonbardaketarekin zerikusirik izan zuenik; baina gerora frogatuta geratu da aire-armada alemaniarrak Francoren baimena eta laguntza izan zuela. Airetik populazio zibilaren aurka, hau da, helburu militarrik gabe, munduan eginiko lehen bonbardaketa izan zen.

PICASSO gertaeraren aurrean

"Espainiako gerra jendearen aurkako erreakzioa da, askatasunaren kontrakoa. "Nitasun artistikoaren" borroka guztia artearen erreakzioaren eta heriotzaren kontrakoa zen. Gernika deituko dudan eta lantzen ari naizen tranpa honetan, eta baita nire oraingo obra guztietan ere, Espainia arraska batean, doluaren eta heriotzaren ozeano batean bihurtu zuen militarren kastakoekiko dudan beldurra adierazten dut".

< la guerra de España es la batalla de la reacción contra la gente, contra la libertad. La vida de "Todo mi" artista era sólo una lucha continua contra la reacción y la muerte del arte. En la trampa sobre la cual trabajo y que llamaré 'Guernica' y en todos mis trabajos recientes, expreso claramente mi horror de la casta militar que hizo de España un fregadero en un océano de dolor y la muerte. >

Picasso, berehala, Franco jeneralaren aurka azaltzen da eta errepublikarren alde kokatzen da 1936an. Bere amorrua 8 metro luze eta 3,5 metro zabal duen koadro honen bidez adierazi zuen. Obra hau, gerraren kontrako eta gerraren ondorioen salaketaren ikur unibertsala izateaz gain, pintura unibertsalaren artelanik garrantzitsuenetakoa ere bada. Beha iezaiozue patxadaz talde handian.

Pablo Sorozabal eta *Gernika* Eusko Kantata

Pablo Sorozabali egindako elkarrizketa zatia:

Zer esanahi du zuretzat Gernika hitzak? "Izan dugun gerra doilorra gogorarazten dit. Gogoan dut gure ama zaharra familia guztiarekin eta haurrekin faxistengandik ihesean Santanderrera joan zirena, poliki-poliki, ondoren, Donostiara itzultzeko. Han etxea kendu ziguten.

Eta honela sortu ziren (Kantataren) txistuak eta tronpak, maisuak era zoragarrian elkarturik. Zergatik aukeratu zenuen hileta martxa bat? Gernika ez da oraindik estreinatu. Franco bizi zelarik, hileta martxa moduan grabatu nuen, baina letra du. Oraindik ezagutzera eman ez dudan kantata bat da, baina hori gertatzen denean, orduan jakingo du jendeak Gernika zer den.

Jarduera bukatu ostean, edo beste memento batean, **gure konpositorearen txokoa** martxan jar dezakezue. Horretarako, bila ezazue informazio-iturrietan Sorozabali eta baita "Gernika" kantatari buruzkoa, eta egin ohi dugun bezala, taldean irakurri eta horri buruz hitz egin ostean, jar ezazue haren argazkia eta landutako entzunaldiari buruzko informazioa konpositoreen txokoan.

Bonbillan adierazi bezala, entzunaldi honekin ikuskizunerako dantza garaikide polita asmatzea proposatzen zaizue. Dantza honek artelana eta entzunaldia hartuko lituzke bere baitan. Horretarako, lehenengo eta behin, plastikako jarduera martxan jarri beharko zenukete (Picassoren koadroko motiboak egiteko) eta ondoren, ikasleak beltzez jantzita eta artelanaren puska horiek eskuartean izanik, musikak transmititzen dienari jarraituz, mugituko dira gelatik zehar, gorputzaren bidez adieraziz eta nolabaiteko dantza garaikide librea eginez. Musika bukatze aldera heldu ahala, ikasle bakoitza bere tokia hartzen joango da, musika bukatzen denean, Picassoren koadroa osatuta gera dadin.

Dantzarako eszenografia egiterakoan, koadroan azaltzen zaizkigun figurak, irudiak, paper zuri handian proiekta ditzakegu eta, moztu ondoren, enbalatzeko kartoietan itsatsi. Horrela, hiru dimentsioko espazioan koka ditzakegu irudiak, eta dantza egiterakoan beraiekin harremanetan jar gaitezke, beraien inguruan dantzatuz, etab. Nahi izanez gero, irudi horiek ere mugi daitezke, atzean heldulekuren bat ipiniz edota, besterik gabe, ertzetatik helduz.

Hainbat kasutan, txoria eta kriseilua, adibidez, makila luze batean jar daitezke eta airean mugitu.

Hondoa paper zurian marraztutako koadroa bera izan daiteke edota oihal beltza.

58. Liburu artean

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 52. or.

Ikasleek irakurketa eta, bereziki, literatur eremuko testu eta liburuen irakurketa atseginerako iturri bezala erabil dezaten helburua betetzeko asmoz, osa ezazue, talde handian, jarduera, proposatzen diren urratsei jarraituz.

59. XX. mendearen bukaera eta XXI. mendearen hasiera

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 53. orrildetik 55.era/Irakurgaiak 5, 63. or./ CDa, 17. pista/DVDa

Orrialde hauetan, XX. mendearen bigarren zatitik gaur egunera arte izandako gertakizun historiko garrantzitsuetako batzuk dituzue. Taldean irakurri eta burutu ezazue jarduera, liburuan proposatutakoaren arabera. Gaur egungo informazio-bilketari dagokionez, jar itzazue ikasleen esku (batez ere informazioa eskuratzeko erraztasunik ez duten ikasleen esku) behar diren bitartekoak (aldizkariak, Interneta, egunkariak...).

60. Komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 56. or.

Ikasleek, bakarka, komikia irakurtzeari ekingo diote. Komikian ikuskizunerako prestaketa-lanak egiten ari dira gure pertsonaiak, eta guri ere iritsi zaigu geurea burutzeko azken lanak martxan jartzeko unea, hala nola kartelak, gonbidapenak, azken entseguak, etab. Eragin ezazue, bada, elkarrizketa lan horien guztien inguruan, zerrenda itzazue eta antolatu lanok.

61. Esazu horrela

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 9. lan-koadernoa, 46. eta 47. or.

Gure arteko komunikazioak egokia izan behar badu, euskara egoki eta zuzen erabili behar dugu. Badira hainbat erabilera oker gure ikasleen ahotan entzuten ditugunak, eta horiek zuzentzeko ahaleginen artean kokatzen dugu "Esazu horrela" saila. Unitate batean baino gehiagotan agertuko zaizue proposamen bat edo beste; hala ere, unitate honetan martxan jarri eta gelan detektatutako erabilera oker guztiak zuzentzeko asmoz, sailari leku egin diezaiokezue eguneko edozein mementotan.

Ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatuko dute, eta gero, talde handian berrikusiko dugu.

62. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 57. orrialdetik 59.era

Unitate honetan, hainbat eduki (kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko) landu dira. Horietako gehienak prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak (informazio-bilketa, arte hezkuntzako hainbat lan, dramatizazioak, elkarrizketak...) dira, bertan hartzen baitute zentzua. Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ebalua daitezkeenak eta ebaluatuko ditugunak. Orrialde horiek ikasleei eta baita irakasleei ere lan hori errazteko pentsatuta daude. Unitatea landu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balioespen egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz, errepasatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emateko.

Sintesiko azken jarduerari dagokionez, talde txikietan osatzea proposatzen dugu. Historiaren atalean aurre-ezagutzak martxan ipini, informazioa bildu eta antolatzen jardun dugu; orain ere horixe eskatzen diegu ikasleei, pieza horietan falta den informazioa liburuan nahiz irakurketa-liburuan bilatzea eta garaiak historiaren ardatzaren arabera antolatzea (zenbaki bidez, adibidez, zein den zeinen ostean). Jarduera hau, beraz, liburuetan kontsultatuz osa dezakete. Aurre-ezagutzekin osatzeko gai badira ere, euren erantzunak egiaztatzeko informazioa liburuan bilatzeko eskatuko diegu.

63. Hemen edo han, gure Txanelan!

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Talde handian, unitatea landu bitartean bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko bigarren atala osatuko dugu. Albumeko atal bakoitza bukatzen duzuenean, har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

Musikako lan-koadernoa

2.1 MUSIKA-TRESNEN FAMILIAK

Lan egiteko era: Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 12. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 7. pista

Laugarren mailan, musika-tresnak 3 familia handitan sailkatu genituen: PERKUSIOZKOAK, HARIZKOAK eta HAIZEZKOAK.

Munduan milaka eta milaka musika-tresna erabiltzen dira. Gehienak, harrigarria bada ere, ezezagunak zaizkigu. Herri bakoitzak, kultura bakoitzak, bereak ditu. Adibide gisa, txistua ez dute Kongon ezagutzen, baina berehala sailkatuko lukete haizezko musika-tresnen familian. Ez, agian, entzunez bakarrik, baina bai, duda izpirik gabe, txistularia begien aurrean ikusita.

Ariketa honekin ez gara arrotzak zaizkigun kulturetako musika-tresna bitxiak aurkeztera etorri, nahiz eta ez dugun beste baterako baztertzen, baizik eta ezagunak zaizkigunak diskriminatzera. Erraza dirudi, ezta? Ba, begira, zailtasun bat gehituko diogu lantxo honi: musika-pasarte bakoitzean bi familiatako tresnak entzungo ditugu. Bi horiek zein familiatakoak diren bereizten saiatuko gara.

Hona hemen, diskoan entzungo dugunaren arabera ordenatuta, bost musika pasarteak:

1. Haria + Haizea
2. Haizea + Perkusioa
3. Haria + Perkusioa
4. Haizea + Perkusioa
5. Haria + Haizea

Beste froga bat ere egin daiteke: berriro entzun bost pasarteak, eta ea bakoitzean zein musika-tresna bereizten dituzten.

2.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 13. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 8. pista

SANTIANO

Frantziar melodia da Santianorena, eta txirulari laguntzeko perkusiozko bi tresna aukeratu ditugu: triangelua eta pandereta. Horrela, orkestra txiki baten sentsazioa izan dezakete gure ikasleek.

Panderetak kortxeak markatuko ditu eta triangeluak zuriak. CDko grabaketan ere bi horiek nabarituko dituzue.

Era honetako fitxak lantzeko prozedura:

- Perkusiozko tresna bakoitza bakarka landu, erritmoa ahoz irakurriz, lehenik, eta musika-tresnarekin, gero.
- Bestalde, ohiko prozedurari jarraituko diogu txirularekin.
- Azkenik, ahotsarekin batera joko dugu perkusioa, eta berdin txirularekin.

Kontuan izan gure orkestratxo honetan ez dugula espezialistarik nahi. Ez dugu nahi triangelua hartu eta harekin bakarrik entseguak egin eta hura bakarrik joko duen ikaslerik. Gure helburua, eskolan, denok edozein tresna erabiltzeko gai izatea da. Horrela, edozein mementotan aldaketak egin ahal izango ditugu. Lehendabizi pandereta jo dutenek txirula joko dute gero. Triangelua jo dutenek pandereta, eta txirula jo dutenek triangelua.

Azkenean, bat edo beste gustukoago izango du ikasle bakoitzak, edo jotzeko errazagoa egingo zaio, baina abiapuntu moduan denek dena frogatzea eta gozatzea izango da baliagarriena.

Gainerakoan, eta partiturari dagokionez, adi anakrusa eta loturekin.

2.3 PENTAGRAMAK OSATZEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 14. or.

Konpas bakarreko pentagrama hauek notaz jantzi beharko dituzte ikasleek. Bakoitzak nahi dituen notak erabiliko ditu, baina baldintza bakarra pentagrama bakoitzean adierazten den neurria errespetatzea da.

Lan-koadernoko fitxa egin aurretik, arbelean neurri bakoitzeko adibide pare bat egitea gomendatzen dizuegu. Aldi berean, zein zelula erritmiko erabil daitezkeen gogoratuko dugu: biribila, zuriak, beltzak, kortxeak eta kortxeaerdiak. Zalantza guztiak argitu ondoren, ekin diezaiotela bakarkako lanari.

2.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 15. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 9. pista

LOVE ME TENDER (Elvis Presley)

Elvis handiak eman zuen aditzera kanta hau 1956an. Gure ustez, melodia goxoa bezain erraza da txirulaz jotzeko.

Ohiko prozedurari jarraituko diogu, baina gauzatxo batzuk gogoratu nahi dizkizuegu:

- Lauko neurrian idatzia dago, eta biribila, zuria eta beltza dira bertan agertzen diren zelula erritmikoak.
- Laugarren mailan ikasitako nota alteratua, **Fa sostenitua** hain zuzen.
- Txirularekin hasi aurretik zenbait ariketa, “entrenamendua”, egitea gomendagarria da, hatzen posizioa gogoratu eta praktikatzeko.

Hona hemen “entrenamendu” horiek egiteko, jolas modura eta ikasleek arreta zaintzeko, adibide bat: pentagramako azken bi konpasak errepikatuko ditugu behin eta berriro, erritmo lasaian eta goxo-goxo. Ez gara gelditukо. Irakasleak, noizik eta behin, nork jarraituko duten jotzen adieraziko du. Gainerakoek, jakina, isildu egin beharko dute eta adi egon hurrengo aginduari. Nork jo behar duen adierazteko aginduak honako hauek izan daitezke: neskak, ordularia dutenak, mutilak, izenean “a” hizkia dutenak, “o” dutenak, belarritakoak dituztenak, galtza luzeak dituztenak, hamar urte dituztenak, etab.

2.5 MUSIKARIEN TXOKOA

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 16. or.

BANBUA

Aurten ere musika-tresna batzuk egingo ditugu. Baina gogoan izan horiek egiteko ahalik eta diru gutxien gastatu behar dugula. Imajinazioa martxan jarriz, eta zaborretara bota ohi ditugun hainbat gauza berrerabiliz, edo naturak eskaintzen dizkigun hainbat material erabiliz, soinu politak eta bitxiak sor ditzakegu.

Gaurkoan egingo dugunari BANBUA deitu diogu, hori delako nagusiki erabiliko dugun materiala.

MATERIALA:
- Luzeran 25-30 cm eta zabaleran 2 cm dituen makila edo baketa.
- Lodiera eta luzera desberdineko kanabera-zatiak.
- Alanbrea, musika-tresnaren euskarri.
- Nylonezko haria.

NOLA EGIN?
1. Kanabera zati bakoitzari haria korapilatu. Hori modu askotara egin daiteke:
   - Jiran-jiran, kanaberari buelta batzuk emanez.
   - Daratuluarekin edo birabarkiarekin kanabera zulatu eta haria bertatik pasaz.

2. Zati horietako bakoitza makilatik (baketatik) zintzilikatu, altura desberdinak emanez.

NOLA SORTU SOINUA?
Soinua sortzeko pixka bat astindu besterik ez da egin behar. Kanabera zatiek elkar joko dute eta soinu atsegina bezain berezia sortuko dugu. Bestalde, eskolako nahiz etxeko txokoren batean zintzilika daiteke, haizeak mugi dezan.

2.6 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 17. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 10. pista

GABON GAUEAN

Gabon giroko kanta alaia da eta erritmo bizikoa. Bizitasun hori kortxeen kokapenak eragindakoa da. Izan ere, 3., 5., 7., 11. eta 13. konpasetan, beltza bi kortxeen tartean agertzen da, eta horixe da, hain zuzen ere, melodiari bizitasuna ematen diona. Ikasleek berehala barneratuko dute erritmoa, baina, seguruenik, **Fa sostenitua** izango da arazo gehiago sortuko dizkiena. Dagoeneko badakizue zer egin behar den arazotxo hori gainditzeko: “entrenamendua”.

Bestalde, perkusiozko tresnaren batekin lagun dezakegu melodia hau. Gabon girokoa izanik, gure proposamena, triangeluak eta zintzarriak erabiltzea da.

2.7 MUSIKA-TRESNEN LETRA-ZOPA

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 18. or.

Bederatzi musika-tresna aurkitu behar dira letra-zopa honetan. Horietako hiru perkusiozkoen familiakoak dira, beste hiru harizkoen familiakoak eta azkeneko hirurak haizezkoen familiakoak.

Zopan aurkitu ahala, ezkerraldeko lerroetan idatzi beharko dituzte izen guztiak.

Hauek dira bederatzi musika-tresna horien izenak:

Perkusiozkoak: triangelua, marakak eta txindatak.

Harizkoak: gitarra, biolina eta harpa.

Haizezkoak: txirula, tronpeta eta txistua.

2.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 19. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 11. pista

AMODIOA

Txirulako pieza guztietan bezala, ohiko prozedura erabiliz landuko dugu. Baina, oraingoan, abestiaren egitura melodikoak aukera ematen digulako, KANON forma landuko dugu. Hala ere, horretan hasi aurretik, ezinbestekoa da guztiek abestia ongi ikastea, bestela, lanak emango dizkizue eta frustrazioa sor dezakegu ikasleengan.

Kanona lantzeko prozedura:

- Behin abestia ikasitakoan, bi talde egingo ditugu: A eta B.
- Talde bakoitzak, berak bakarrik, kanta dezala hasi eta bukatu arte. Horrela, denek ikasi dutela ziurtatuko dugu.
- A taldeari emango diogu sarrera, eta bigarren eskemara iristean, kasu honetan bigarren pentagramara, B taldeari emango diogu sarrera, baina hasieratik hasteko.

Askotan ez dugu jakiten Kanona nola hasi eta nola bukatu. Modu bat baino gehiago daude horretarako eta irakasle bakoitzak erabakiko du. Guk bi era hauek proposatzen dizkizuegu:

1. TUTI esatean, unisonoan hasi, eta bi aldiz jo melodia. Gelditu gabe, eman sarrera A taldeari, eta bere unean B taldeari. A taldeak hiru aldiz edo kanta osoa egin duenean, berriro TUTI esan, eta denak batera hasieratik has daitezela behin edo bitan abesti osoa egiteko.
2. A taldea hasiko da, eta hau bigarren eskemara iristean, B taldea hasiko da hasieratik. A taldeak hiru edo lau aldiz kanta osoa egin duenean, isiltzeko agindua emango diogu, eta, horrela, B taldekook bakarrik entzungo dugu bigarren eskema hori egiten eta kantua bukatzen.

Kanona solfeatuz, kantatuz edo txirula joz egin genezake. Erritmoa markatuz ere lan daiteke kanona, baina kanta honetan ez luke zentzurik izango, bi eskemak berdin-berdinak direlako.

Ez ahaztu: kanonari ekin aurretik komeni da entsegu batzuk denok batera egitea, beti baitago norbait, eta normala da, beste taldeari entzunez segurtasuna galdu, distraitu edo nahasten dena, eta, ondorioz, emaitza onik lortzen ez duena.

2.9 ERANTZUNAK AUKERATU

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka
Materiala: Musikako lan-koadernoa, 20. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 12. pista

Test moduko galdera sorta aukeratu dugu fitxa honetarako. Galdera bakoitzari hiru erantzun jarri dizkiogu, eta bakarra da zuzena, azkenekoan izan ezik, non garrantziaren arabera 1etik 3ra zenbatu beharko diren erantzunak.

Irakasleak, galdera hauek edo eta antzekoak luzatuko dizkio taldeari, zalantzarik balego, beharrezko argibideak emateko. Ikasleek, erantzunak beraientzat gordeko dituzte. Dena argi dagoenean, arkatzak hartu, eta ea zuzeneko erantzunak aukeratzen dituzten.

Tarteka-marteka, ikasturtean zehar, era horretako ariketak egin ditzakegu "kontrol" modura, ikasle bakoitza nola doan jakiteko.

KANTUA

Tira-bira itzulika.
Gora beheraka aldika.
Pilota dabil atzetik aurrera,
esku batetik bestera.

Oso kantu sinplea izanik, aukera ugari eskaintzen dizkigu.

Batetik, kantua ikasi eta 4 talde osatuz, kanon polit bat egin daiteke. Badakizue zein den hori ongi ateratzeko prozedura:

1. Denok kantua osorik ikasi.
2. Lau talde egin.
3. Talde bakoitzak, bakarka, kanta dezala abesti osoa.
4. A taldea hasi, B taldea hasi hasieratik. A taldea 5. konpasera iristean, D taldea hasi. B taldea 5. konpasera iristean, E taldea hasi. D taldea 5. konpasera iristean, A taldea hasi...

Bestalde, mugimendua egiteko aukera ematen digu, baina, horretarako, erritmoa sentitu behar da, eta oraingoan zuriak izango dira ongi barneratu beharrekoak:

h h h h

Materiala: baloiak.

Koreografia txiki bat proposatzen dizuegu:

- Marraztu lurrean bi marra paralelo, 2 metro inguruko tartea ipiniz.
  - Marra batean taldeko gidaria jarriko da, eta berak izango du baloia.
  - Beste marran, beste hiru lagun jarriko dira, bata bestearen atzean.
  - Gidariak baloia botako dio bere aurrekoari, horrek gidariari itzuli, eta makurtu egingo da.
  - Gidariak aurrean duen bigarrenari pasako dio baloia. Horrek itzuli, eta makurtu egingo da.
  - Gidariak aurrean duen hirugarrenari pasako dio baloia. Horrek itzuli, eta makurtuta daudenak zutitu egingo dira, berriro lehenengoari baloia pasatzeko. Eta horrela nahi den arte.

Horrelako 4 talde egingo ditugu (16 lagun).

Kontuan izan behar da zurien erritmoari, denok, ongi jarraitzea. Erritmoa begietatik ere sartzen zaigula ohartuko dira eta pilota guztiak, 4 kasu honetan, denak batera doazela alde batetik bestera.

Hori guztia "unisonoan" ongi menperatutakoan, gauza bera egin dezakegu KANON modura.